

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko azaroaren 11n

87 ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

—Foru Lege proposamena, eskubide sozialen gutun baterako, Vicente Duque Alonso jauna buru duen Batzorde Eragile batek aurkeztua (2. or.).

G SAILA:

Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

—Nafarroako 1997ko Kontu Orokorren azterketari buruzko txostena, Kontuen Ganbarak egina (5. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, eskubide sozialen gutun baterako

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 3an egindako bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobeztzeari buruzko Lege Organikoaren 19.2 artikulua aitortzen duen herriaren legegintza-ekimena erabiliz eta martxoaren 25eko 3/1985 Foru Legearen babesean, eskubide sozialen gutun baterako Foru Lege proposamen bat aurkeztu zen Nafarroako Parlamentuan, Batzorde sustatzaile batek aurkeztu ere, zeinaren burua Vicente Duque Alonso jauna baita. Mahaiak 1998ko martxoaren 31n onetsi zuen tramitera.

Herriaren legegintza-ekimena arautzen duen 3/1985 Foru Legearen 12.2 artikulua dioena betez, Nafarroako Probintzi Hauteskunde Batzordearen Idazkariak ziurtagiria eman du hauxe egiaztatzeko: izenpeak zenbatu eta Hautesle Erroldaren probintzi ordezkari jaunak emandako ziurtagiriarekin egiaztatu ondoren, Nafarroako eskubide sozialen gutun baterako herriaren legegintza-ekimenaren izenpe baliodunen zenbatekoa hamaika mila eta hirurogei da (11.060)".

Ondorioz, 3/1985 Foru Legearen 13 artikulua eta Biltzarreko Erregelamenduen 145. artikulua rekin bat etorriz, Bozeramaileen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

Lehena.- Eskubide sozialen gutun baterako Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bigarrena.- Aipatu Foru Lege proposamena Nafarroako Gobernura bidaltzea, Erregelamenduen 145.2 artikulua onorioetarako.

Iruñean, 1998ko azaroaren 4an

Lehendakaria: M^a Doloren Eguren Apesteguía

Foru Lege proposamena, eskubide sozialen gutun baterako

ZIOEN AZALPENEA

Langabezia estrukturala edo iraupen luzekoa gure gizartearen arazo nagusietako bat bilakatu da. Azken estatistika ofizialek diotenez, Nafarroako Foru Komunitateko langabezi tasak langileria aktiboaren %10,45ean estabilizatu dira (23.600 langabetu). Familietako %3,4 pobrezia latzenean dago, eta INEMen izena eman dutenetan %50,51k baizik ez du nolabaiteko laguntzaren bat jasotzen. Horrela, bada, begibistan zabaltzen ari zaigu gizarte honetan enplegu egonkorra dutenen eta ez dutenen arteko hesia.

Bestalde, ikus daiteke hazkuntza ekonomikoaren zikloek ez dutela balio izan enplegu egonkorra sortzeko, teknologia berriek lanpostuak elimaintzen baitituzte sortzen diren baino arinago eta portzentaia handiagoan. Horrek erremediorik gabe kontrajartzen ditu teknologia berrien bidez laneko denbora aurrezte eta erabiltzen ziren teknologia-atzeratuagoak zirenean ezarritako lanaldiak mantentzea. Hortik datozen ondorio sozialen adierazle dira langabezia, pobrezia eta bazterketa soziala behin betiko bihurtzen direla. Hiritartasunaren eskubide unibertsalak ezin dituzte bere osotasunean erabili lan merkatutik baztertuak izan diren pertsonak, eta eskubide horiek berreskuratzeko behar-beharrezkoa da antolamendu juridikoan halako irizpide arautzaileak sartzea, merkatu libreko ekonomiak sortutako desegokitasun sozialak zuzentzeko bidea eman dezaketenak. Helburu horrekin, erabaki dugu Nafarroako Foru Komunitatean bizi diren pertsona guztientzat hiritartasun eskubidea bere osotasunean bermatuko duen Eskubide Sozialen Gutun bat onartzea.

Hala ere, lege proposamen honek dituen mugak agerian daude, Nafarroako Foru Komunitateak Lan eta Gizarte Segurantzaren eskumenik ez baitu.

1. TITULUA Xedapen Orokorrak

1. artikulua. Legearen xedea. Lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitateko eremuan Eskubide Sozialen Gutuna aldarrikatzea, bizitokia Nafarroako duten (urte beteko egonaldia) hiritar guztiei segurtatuko diena lan bat eta oinarrizko errenta eskuratzea hiritartasunak ematen dituen eskubideez bere osotasunean baliatzeko aukera izan dezaten.

Horretarako desegokitasun sozialen gainean esku hartzeko bideak ezarriko dira, izan ere berregituratze ekonomikoak eta desindustrializazioak gure gizartean, besteak beste, langabezia estrukturala, lan prekarietatea, pobrezia hazkuntza eta hiritarren gero eta zati handiagoaren bazterketa sozialaren kronifikazioa sortu dituzte.

2. artikulua. Lege hau ondoko printzipioetan oinarritu da:

Hiritartasun eskubide unibertsalak berriro ezartzea lan merkatutako sarbidea itxirik duten pertsona guztientzat, behar den dirusarrerarik ez baitute besteak dituzten eskubide berekin bizitza duin bat izateko, kulturara iristeko eta etxebizitza, zerbitzuak, hezkuntza, osasuna eta gizartean integrazio osoa izateko ere.

Gizartearen produktutik hiritar bakoitzari dagoen zatia izateko eskubidea benetan aitortzea, bila ibili arren lanik aurkitzen ez dutenentzat oinarrizko errenta bat emanez.

Lanaldia banatzea lan bila dabilzanen artean, pertsona eta talde sozialen arteko elkartasun eta berdintasun printzipio unibertsalen izenean, eta hiritartasun eskubideak inplikatzeko duelako nork bere lanarekin laguntzea gizarte osoak ongizatea izan dezan.

II. TITULUA Lanaldiaren banaketarako politika

3. artikulua. Nafarroako Administrazio Publiko langileak. Nafarroako Foru Komunitatearen autogobernurako eskumenekin bat (Forua Hobeagotzeari buruzko Legearen 49,1.b artikulua) eta agente sozialekin ados jarririk, Nafarroako Administrazio Publiko langileen lan harremanen arautegia helburu hauetan oinarrituko da: asteko lanaldia 32 ordura jaistea, jubilatze adina 60 urtetan paratzea langile guztientzat, bateraezintasun sistema ezartzea, aparteko orduak kentzea, langile guztientzat, bateraezintasun sistema ezartzea eta aldi baterako kontratuak –halakorik dagoenean– kontratu egonkor bihurtzea.

4. artikulua. Negoziazio kolektiboa. Guztien onerako, agente sozial eta ekonomikoei eskatuko zaie negoziatzio kolektibo librearen bitartez gizarte osora heda ditzatela lege honen 3. artikuluan adierazten diren lan kontratazio modalitateak.

III. TITULUA Lanpostu banatua

5. artikulua. Lanaldi osoa duen pertsona batek bere lanpostua langabetu batekin erdibanatzeko akordio egiten badu, Nafarroako Gobernuak bi horientzako ordainketa ekonomikoa eratu du, jasotzen duten soldataren alderantzizko proportzioan.

IV. TITULUA Oinarrizko errenta

6. artikulua. Eskubidearen definizioa. Nafarroako Foru Komunitateko autogobernuaren eskumenekin bat etorritik (Foru Hobetzeari buruzko Legearen 44.17 artikulua), behar diren neurriak arautuko dira lan merkatutik kanpora daudenean eta behar diren dirusarrerak ez dituztenek eskubidea izan dezaten oinarrizko errenta bat kobratzeko, eskubide osoko hiritar gisa bizi ahal daitezkeen. Errenta hori, beraz, eskubide individualizatua izanen da, bila ibili arren lanik aurkitzen ez duten guztiei emanen zaiona.

7. artikulua. Onuradunak. Enplegurako zerbitzu publikoetan izena emanda dauden 17 urtetik gorako pertsonak, betiere, Nafarroako edozein udalerritan urte bete aurretik bederen errolatuak badaude.

Era berean, eskubide bera izanen dute Lanbidearteko Gutxieneko Soldata baino prestazio edo subsidio txikiagoa kobratzen dutenek. Horretarako, Nafarroako administrazio publikoak, aurrekontu ekitaldi bakoitzean, LGS horretara iritsi arte gelditzen den dirua jarriko du.

8. artikulua. Zenbatekoa. Aurrekontu ekitaldi bakoitzean indarrean dagoen Lanbidearteko Gutxieneko Soldatarena izanen da.

9. artikulua. Iraupena. Mugagabea izanen da eta onuraduna lan merkatuan sartzen denean eten egiten da. Berriro ordainduko da lana bukatzen bada eta LGS adinako edo gehiagoko prestazioari kobratzen ez bada.

10. artikulua. Betebeharrak. Oinarrizko errentaren onuradunek, eta hori kobratzeko egoeran dauden bitartean, Administrazioarekin negoziatutako akordio bat sinatu beharko dute, zeinetan ezarriko baita zein jardueratan parte hartu behar-

ko duten hezkuntza, prestakuntza edo sustapenaren arloetan.

lege honetan ezarritakoa hobeki bete eta garadadin.

V. TITULUA
Finantzaketa

Azken xedapena

11. artikulua. Lege honetan hartutako neurriak Nafarroako Foru Komunitateko aurrekontu arrunten bidez finantzatuko dira.

Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik aitzina hartuko du indarra.

Erregelamenduzko xedapena

Xedapen indargabetzailea

Hiru hilabeteren buruan erregelamenduzko xedapenak eta xedapen osagarriak emanen dira,

Indar gabe galditzen dira lege honen kontrako xedapen guztiak.

G saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Nafarroako 1997ko Kontu Orokorren azterketari buruzko txostena, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko urriaren 20an eginiko bilkuran, Nafarroako 1997ko Kontu Orokorren azterketari buruzko txostena, Kontuen Ganbarak egina, argitaratzea erabaki zuen.

Iruñean, 1998ko urriaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako 1997ko Kontu Orokorren azterketari buruzko txostena, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (5. or.).
- II. Helburua (5. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (6. or.).
 - III.1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Orokorren osaketa (6. or.).
 - III.2. Norainokoa (8. or.).
 - III.3. Mugak (9. or.).
- IV. Iritzia, iruzkinak, ondorioak eta gomendio orokorrak (9. or.).
 - IV.1. Iritzia (9. or.).
 - IV.2. Iruzkinak, ondorioak eta gomendio orokorrak (12. or.).

Eranskina: Nafarroako 1997ko Kontu Orokorrak.

- Nafarroako 1997ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua onesten duen erabakia.
- Nafarroako Aurrekontu Orokorren likidazioa.
- Finantzen egoera-orriak.
- Oroit-idazkia.

(Oharra: Eranskinean aipatutako dokumentuak Foru Parlamentarien esku daude dagokien espe-

dientean Nafarroako Parlamentuko Zerbitzu Orokorretan).

I. SARRERA

1981eko Kontu Orokorrei buruz Ganbarak eginiko lehen txostenaz geroztik, gure metodologiak bilakaera jasan du Parlamentuari eta herritarrei zerbitzu hobea eskaintzeko.

Gure bilakaerarekin batera, Nafarroako Gobernuak kontabilitate eta kudeaketarako informazio-sistemak hobetu ditu. Fiskalizaturiko lehen ekitaldian, exekutiboak emandako informazioak txosten zabal bat egitera behartzen gintuen; baita ere, ekitaldi bakoitzaren amaieran gastu eta dirusarreraren aurrekontuaren betetzea eta Nafarroako sektore publikoaren finantza-egoera hobeto ulertzeko beharrezkotzat jotzen genuen informazio gehigarria ekartzera

Dena den, Gobernuak -batez ere 1985etik aurrera, une horretan kontabilitate eta kudeaketa sistema aldatu zenez geroztik- urtero gero eta oroit-idazki osatuagoa eskaintzen aritu da, eta, praktikan, azken ekitaldian, informazio-bikoiztua egotea erakarri ahal izan du; alegia: gure txostenekoa eta haren oroit-idazkikoa.

Nafarroako 1997ko Kontu Orokorretan, azaldutako bilakaera dela-eta, gure txostenaren egiturak aldaketa pairatu du; horrela, helburu bat gehitu diogu, alegia, Gobernuak eskainitako oroit-idazkiko datuen eta iruzkinen arrazoizotasuna aztertzea. Oroit-idazki hori eranskin gisa sartu dugu gure txostenean, gastu eta dirusarrera aurrekontuen likidazioarekin eta finantzen egoera-orriekin batera.

II. HELBURUA

Indarreko legediarekin bat etorritik, eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 1998ko ekainaren 17an hartutako erabakia betetz, Kontuen Ganbara honek honako txosten hau egin du, ondoren esaten diren gauzei buruzko iritzia emateko:

- 1997ko Nafarroako Aurrekontu Orokorren betetze-mailaren egoera-orriak modu egokian islatzen duen aldi horretan burutu den jarduera.

- Foru Ogasunaren ondasun-egoeraren arrazoizkotasuna 1997ko abenduaren 31n, aplikatzen zaizkion eta aurreko ekitaldikoaren antzekoak diren kontabilitate-hatsapenen arabera.

- Foru Komunitateko Administrazioaren eta honen erakunde autonomoen ekonomi eta finantza jarduera legezkontasunaren hatsapenaren menpe ote dagoen.

- Foru Ogasunaren 1997ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

- Nafarroako Gobernuaren oroit-idazkian agertzen diren datuen eta iruzkinen arrazoizkotasuna.

- Nafarroako Kontu Orokorren aurreko fiskalizazio txostenetan Kontuen Ganbarak emandako gomendioen betetze maila.

Iritzi hau Nafarroako Gobernuak egindako hainbat jarduera edo eginkizuni atxikitako baliabide publikoen kudeaketan lortu den eraginkortasun eta ekonomia mailari buruzko ondorioak osatuko du, txostenaren III. epigrafean azalduko mugak ere kontuan harturik.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK

III.1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN OSAKETA

Hurrengo orrialdean aurkitzen den laukian Foru Komunitateko Administrazio Orokorren osaketa deskribatzen da; honako hau, hain zuzen ere:

- Administrazio Publikoaren arloa, hurrengo entitate hauek osaturik:

- a) Nafarroako Gobernuko Departamentuak, 10 guztira.

- b) Administrazio izaerako erakunde autonomoak (aurrerantzean, EAK) :

1. Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua (NAPI)

2. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua (O-NOZ)

3. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua (NGOI)

4. Nafarroako Lan Osasunaren Institutua (NLOI)

5. Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua (NKGI)

6. Nafarroako Mahastilan eta Enologi Zentroa (NMEZ)

- 7 Nafarroako Emakumearen Institutua (NEI).

- Enpresa publikoen arloa, Nafarroako Gobernua zuzenean nahiz zeharka kapitalaren ehuneko 50aren edo gehiagoren jabea den enpresa publikoek osatua. 1997an arlo hau 26 enpresa publikoek osatzen dute.

- Zuzenbide publikoko enteak (aurrerakoan, ente publikoak), honako hauek, hain zuzen ere:


- a) Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP)

- b) Nafarroako Su-Itzaltze eta Salbamendurako Partzuergoa (aurrerantzean, Partzuergoa)

- c) Nafarroako Industri eta Merkataritza Ganbera.

Ogasun publikoari buruzko Legeak ez du aurreikusten zuzenbide publikoko enteak Kontu Orokorretan sartzea; hala ere, azken urteotan, metodologiako ondorioetarako eta Nafarroako Administrazio Orokorra osatzen bukatzearen, sartu egiten ditugu.

Komunitateko administrazio orokorra aurreko lerroaldeetan zerrendan antolatua agertu dugu, eta zerrenda horri Parlamentua eta Kontuen Ganbara gehitu behar zaizkio.



III.2. LANAREN NORAINOKOA

Aztertzen ari garen Nafarroako Kontu Orokorrek, Gobernuak argitaratuek, honako egoera-orri hauek badituzte:

- Gobernuaren Aurrekontuaren 1997ko ekitaldiko kitapena, bere sailkapen guztiakin: ekonomikoa, organikoa, programen araberakoa eta funtzionala.

- 1997ko balantzea eta emaitza-kontua eskaintzen dira, birsailkapen egokiaren ondoren, 1994an onarturiko Sektore Publikoko Kontabilitate Plan Orokor berriak proposatzen dituen eskema eta terminologiarekin. Halarik ere, aurkezpen berritu hau ez da aplikazio kontablea aldatzearen ondorio, ez eta kontabilitatea Plan berriari egokitzearen ondorioa ere.

- Fondon jatorri eta aplikazioaren egoera-orria, altxor eta zorpetze kontua, Gobernuaren eta erakunde autonomoen ondasunen inbentarioa eta Balantzeko kontu garrantzitsuenei buruzko informazioa ere eskaintzen dira. Horretaz gain, honako hau:

a) Jatorria lehenagoko ekitaldietan izanik, kobratzekoak diren eskubideen eta ordaintzekoak diren betebeharren bilakaerari eta egoerari buruzko informazioa.

b) Guztiok erabiltzekoak diren jabari publikoko ondasunetan ekitaldian zehar eginiko inbertsioei buruzko informazioa.

c) Etorkizuneko ekitaldien kargura hartutako konpromisoen egoera.

- 1997ko aurrekontuen betetzeari buruzko oroit-idazkia. Bertan, hauxe agertzen da:

a) Aurrekontu-betetzearen puntu aipagarrienei buruzko iruzkina.

b) Aurrekontu-betetzearen analisia, kapitulu ekonomikoen araberakoa.

c) Aurrekontu-betetzearen analisia, sailkapen funtzionalaren araberakoa.

d) Aurrekontu-betetzearen analisia, departamentuen araberakoa.

e) Aurrekontu-betetzearen analisia, programen araberakoa.

f) Ekitaldiko aurrekontu-aldaketen analixi xehekatua, horien figura juridikoaren arabera, departamentuz departamentu eginikoa.

g) Halaber, oroit-idazkiak bost gehigarri dauka, Foru Ogasunaren 1997ko abenduaren 31ko finantza-egoerari buruzkoak; baita ere, enpresen

sektore publikoaren daturik garrantzitsuenen analisia, 1997ko ekitaldian zehar Administrazioak eginiko kontratazio publikoaren azterlana eta xehetasunak eta erakunde autonomo eta zuzenbide publikoko enteen aurrekontu-betetzearen analisia.

Gobernuak emandako informazio hori guztia gure txosteneko eranskin gisa agertzen da.

Gobernuak honako informazio hau ekartzen du, eranskin gisa, Kontu Orokorretan. Informazio hori ez da gure txostenean agertzen.

a) Enpresa publikoetako urteroko Kontuak eta kontu-ikuskapeneko txostenak.

b) Erakunde autonomoetako aurrekontu-betetzearen xehekapena.

c) Nafarroako Aurrekontu Orokorretako gastuen eta dirusarrerren lerroen xehekapena.

d) Parlamentuko eta Kontuen Ganbarako aurrekontu-betetzearen xehekapena.

Gure lanaren norainokoak aurreko lerroaldeetan deskribaturiko Nafarroako Kontu Orokorren analisia eta zentsura hartzen ditu barnean.

Metodologiari doakionez, Espainiako Estatuko kanpoko kontrolerako erakundeen koordinazio Batzordeak onetsitako arlo publikoaren ikuskapenari buruzko printzipio eta arauak erabili dira.

Zehazki, balantzea eta emaitza-kontuaren azterketan egokitzen jo ditugun finantza publikoetako ikuskapen-arau eta jardunbideak erabili dira, inguruabarren arabera eta lanaren helburuak kontuan hartuz, eta gainera, horiei antolamendua eta barneko kontrola hobetzeko egoki jo diren iruzkin eta gomendioak erantsi zaizkie.

Aurrekontuaren azterketa eta zentsura (horren barnean erakunde autonomoak sarturik daude) zein eraginkortasun eta ekonomia mailaren analisia, aurreko txostenetan bezala, batik bat aurrekontu-programen edo eginkizun/jarduera publikoaren azterketan oinarritu da. Batetik programa horietan epigrafe ekonomiko bakoitzeko gastuak eta dirusarrerak aztertu ditugu, finantza eta aurrekontu-ikuskapenaren berariazko metodologia erabiliz, eta bestetik, ezarritako helburuen betetze maila, eta ahal izan denean, erdietsitako eraginkortasun eta ekonomia maila ere aztertu ditugu, orokorrean onartuta dauden prozedurak erabiliz.

Aztertutako programak eta jarduerak honako hauek izan dira:

a) Belateko mendateko obrak.

b) "Kirola eta gazteria sustatzeko" programa, erakunde autonomo den Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuarena.

c) Tributu arloko Txosten eta Ebazpen Organoaren analisia

d) Profesionalen ordainsarien analisia.

e) Familia eta komunitatea programa.

f) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zerbitzu-emateko kontratuak.

g) Ikuskatze, prestazio eta osasun-kontzertuei buruzko programa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuarena.

Bereiz argitaraturiko txosten xehekatu baten arretagai dira lan horiek; esku artean dugun txosten honetan, ordea, ondorio eta gomendio orokorrak jasotzen dira.

Gobernuak eginiko oroit-idazkiaren eta Kontu Orokorren gehigarrien azterketarekin osatua geratzen da lana. Halaber, eginiko iruzkinen eta emandako datuen barne-koherentiaren alderdi azpimarragarrienak ere aztertzen dira.

Azkenik, enpresa publikoen kontratazioari eta Nafarroa eta Estatuaren arteko hitzarmen ekonomikoari buruzko berariazko analisia egin dugu.

Azaldutako lanari dagozkion iritzi, iruzkin, ondorio eta gomendio orokorrak hurrengo epigrafean agertzen dira.

III.3. MUGAK.

Egindako lanak izan dituen mugen artean aipatu behar dugu baliabide publikoen kudeaketan erdietsiriko ekonomia, efikazia eta efizientzia mailaren egiaztapena, aztertutako programa jakin bakoitzaren garapen-mailaren menpe dagoela, eta baita ere, horren kudeaketa-mailaren, eskura dagoen informazioaren eta proposaturiko adierazlearen kalitatearen menpe. Hortaz, hainbat programaren kudeaketa publikoaren efikazia eta efizientziari buruzko ondorioz ezin izan dugu beti eman.

Zelaiko lana 1998ko maiatzetik abuztura bitartean egin du kontu-ikuskari batek, kontu-ikuskaritzako lau teknikok eta praktiketako laguntzaile batek osaturiko taldeak, beti ere Kontuen Ganbarako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratioboien lankidetzara irauten izan dutela.

Eskertu nahi diegu Nafarroako Gobernuak lan-gileei lan hau egiteko azaldu duten lankidetasuna, eta bereziki Ekonomi eta Ogasun Departamentuko langileei.

IV. IRITZIA. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIO OROKORRAK.

IV.1. IRITZIA.

Egindako lanaren norainokoaren arabera, hauek aztertu ditugu: Nafarroako Gobernuaren egoera-balantzea, ekonomi eta ondareko emaitza-kontua, Nafarroako Gobernuaren Aurrekontuaren kitapena eta 1997ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiaren oroit-idazkia. Txosten honi eranskin gisa gehitu zaizkio.

Gure lana egiteko onartu ohi diren ikuskapen publikoko arau eta prozedurak erabili ditugu, inguruabarren arabera eta lortu nahi ziren helburuak kontuan hartuz.

Gure jarduketaren ondorioz, hona hemen iritzia:

IV.1.1. 1997ko aurrekontuaren betetze mailari buruz.

1997ko Aurrekontuaren kitapenean azaltzen diren gastu eta dirusarrerak egokiro islatzen dute aldi horretan Nafarroako Gobernuak burutu duen jarduera, hurrengo salbuespenarekin:

1997ko aurrekontuaren betetzeak ez ditu islatzen BEZaren konpentsazio-kontzeptupekoak eta Estatuarekin sinaturiko hitzarmen ekonomikoaren ondoriozkoak diren 3234 milioiko dirusarrerak. Kopuru hori hitzarmena eguneratu aurreko ekitaldietako doiketei dagokiena da, eta Gobernuak, kutxa-irizpidea erabiliz, 1998ko aurrekontuaren betetzean erregistratu du.

Gobernuak, aurreko ekitaldietan erabilitako irizpideen ildotik, 12.000 milioi pezetako zor-jaulkipena eta 15.358 milioiren deusezteia islatu du, 3358 milioi jotzen duen garbia jaso duelarik gastu-aurrekontuan.

IV.1.2. 1997ko abenduaren 31ko egoera-balantzeari buruz.

Nafarroako Gobernuaren egoera-balantzearen saldoek Foru Ogasunaren ondare-egoeraren ezaugarri nabarmenenak islatzen dituzte, 1997ko abenduaren 31n, honako salbuespen hauekin:

- Ibilgetu materiala eta finantzarioa.

Nafarroako Gobernuaren jabetzapeko ondasun materialen inbentarioa osatu gabe egoteak eragotzi digu iritzia ematea saldo horien arrazoizkotasunari buruz.

- Zerga-zordunak.

Akatsak antzeman ditugu, zerga-zordun guztiak aztertzeke prozesua ez delako bukatu, eta gure ustez beharrezkoa da zenbait saldo sistematikoki berraztertzen segitzea, batez ere zenbateko hartzekodunak dauzkatenak.

- Kontingentziak.

Indarrean dagoen Nafarroako Gobernuaren funtzionarioen pentsio-sistemak sorrarazten dituen betebeharrak aktuariaren ondorioz dauden kontingentziak ez dira jasotzen.

IV.1.3. Legezketasunaren printzipioaren betetzea.

Orokorrean, Nafarroako Gobernuaren ekonomi eta finantza jardura legezketasunaren printzipioaren arabera gauzatzen da.

IV.1.4. Foru Ogasunaren finantza-egoera.

1996an hasitako joera-aldaketari jarraituz, 1997an ere finantzaketa-beharrizanak desagertu egin dira eta aurreko ekitaldiarekiko hobekuntza bat gertatu dela ere esan daiteke.

Horren arrazoia da ohiko dirusarrerek ehuneko 8,8 gora egin dutela, ohiko gastuek gora egiten jarraitu dutelako; zehazki, 1996ko ekitaldiko datuekiko ehuneko 7,7 egin dute gora.

1997ko ekitaldiaren bukaera alderako zor publikoa 124.835 milioi pezetaraino jaitsi ahal izan da aurrekontu-egoera horren ondorioz, aurrekontu-agertokiak 162.452 milioi pezetatan ezartzen bazuen ere.

1997an, ibilkorraren superabita (epe laburreko zordunak gehi erabilgarria ken epe laburreko betebeharrak), 786 milioi handiagoa da, aurreko ekitaldikoarekin alderatzen badugu, eta 22.586 milioi pezeta egiten du. Superabit hori aldi baterako inbertsio finantzarioetan gauzatu da.

Ondorio gisa, esan dezagun Foru Ogasunak 1997an bete egin dituela 1995-1997 aurrekontu-agertokian ezartzen ziren baldintzak finantzazio eta zorpetzeari dagokionez, batez ere dirusarrera ez finantzarioetan izan den gorakadarengatik. Horrek gastu-gehikuntza konpentsatzen du; izan ere, Nafarroarako aurrekontu-agertokian aurreikusitakoak baino 13.017 milioi gastu ez-finantzario gehiago gauzatu dira.

Hortaz, finantza-egoera osasuntsua da; hala ere, Ganbara honen gomendioek indarrean diraute gastuen alorrean; hau da, aurrekontuaren alde tik zorrotz jokatzeko beharrak bere hartan dirau.

- *Nafarroako Gobernuak aplikatzen dituen gastu-programa eta politika guztien berrazterketa sistematiko, egituratu eta aldizkakoa.*

- *Baliabide publikoaren kudeaketan emaitza ekonomiko-sozialen bilaketa eragin eta langileak motibatu behar dituzten eginbide eta tresnen ezarpenean sakontzea, baliabide publikoen efikazia eta efizientzia hobetzea bermatuz.*

- *Administrazio eta herritar guztiek parte hartu behar duten iruzurraren aurkako erabateko jarduketaren bultzatzea.*

Neurri hauek guztiak eraginkorrak izango lirake administrazio eta gizarte-eragile guztiek eta Nafarroako Parlamentuak babestuko luketen jarduketaren plan baten barruan sartuko balira.

III.1.5. 1997ko ekitaldiko oroit-idazkia

1997ko ekitaldiko oroit-idazkia txostenaren eranskin gisa gehitu da, eta honako hau agertzen du, arrazoizko moduan: Gobernuaren finantza- eta ondare-egoera (IV.1.1. eta IV.1.2. epigrafeetan esplikaturako salbuespenak kontuan edukiz), aurrekontu-betetzea modu ezberdinetako sailkapenekin, enpresen sektore publikoko datu garrantzitsuak, erakunde autonomo eta zuzenbide publikoko enteak eta Gobernuak 1997ko ekitaldian eginiko kontratazioa.

Hala ere, oroit-idazki hori datozen ekitaldian osatu egin behar da; horregatik, hauxe gomendatzen dugu:

- *Emaitza-kontua behar bezala esplikatzeko duten iruzkinak gehitzea.*

- *Langileria-gastuetan Gobernuaren plantila organikoa eta berorren bilakaerari buruzko adierazpen xehekatua gehitzea.*

- *Zerga-gastuei buruzko aurreikuspenen bete-tze-mailari buruzko informazioa gehitzea.*

- *Enpresen sektore publikoari buruzko informazio zabalagoa eskaintzea, zorpetzea, langileria-plantila eta berorren bilakaera bezalako datuekin hori osatuz.*

- *Gobernuak bere gain abal, mailegu eta abar gisa, zuzenean nahiz berorren partehartzea duten enpresen bidez, harturiko arrisku ekonomikoari buruzko xehetasuneko adierazpena egitea*

- *Txostenean egiten dugun hainbat gomendio-ekin zerikusia duten zenbait alderdiren bilakaerari buruzko informazioa eskaintzea; adibidez: iruzurraren aurkako jardueraren egoera, zordunen erregularizazioen egoera eta programen efikazia eta efizientziari buruzko analisia.*

- Eginiko obren adierazpen xehekatua eskaintzea, hainbat ekitaldi ukitzen dituztenak zeintzuk diren eta horien finantzaketa aipatuz.

- Zuzenbide publikoko enteen kontu-ikuskaritzak azaltzea.

IV.1.6. Kontuen Ganbara honek aurreko txostenetan emandako gomendioen betetzea.

Ekitaldi bateko Kontu Orokorrei buruzko Txosten bat argitaratzen denetik hurrengo ekitaldikoak ixten diren arte oso epe laburra igarotzen da, eta horregatik ezin daiteke behar bezalako iritzia eman lehengo txostenean azaltzen ziren gomendioak noraino bete ote diren.

Hala ere, ikusten da gero eta ahalegin handiago egiten dela ematen diren gomendioak betetzeko. Ildo horretatik, Kontuen Ganbara honek txosten bat egin zuen Foru Komunitateko Administrazio Orokorren esparruan emandako gomendioen jarraipenari buruz, 1991tik 1995era bitarteko aldirian (1996ko uztailaren 46ko 46. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala - NPAO-). Aipatu txostenean jasotako 60 gomendioetarik, hurrengoak daude indarrean jartzeke:

- Ibilgetua.

Nafarroako Gobernuaren jabetzakoak diren ondasun higikor eta higiezinen inbentarioa egiteko prozesua amaitzea, balorazio irizpideak eta prozedura administratiboak ezarri eta uztartuz.

Ibilgetuari buruzko kontabilitate saldoen berraztertze eta garbitzeari ekitea, horiek Nafarroako Gobernuaren izaera horretako ondasun multzoa isla dezaten.

- Zordunak.

Zordunen kontuen abenduaren 31ko saldoak aztertzea, saldo hartzekoduna dutenak, batez ere.

- Kontingentziak.

Egungo pentsio ereditik sorturiko betebeharrak aktuarialak zenbatekotu eta finantza egoera-orrietan erregistratzea.

- Epe laburreko zorrak.

Aitorturiko betebeharrerengatik hartzekodunak. Zentro guztietan tratamendua osatzea, ekitaldiko itxieran dokumentuzko euskarriei zein erresulten zenbatekotze arrazoizkoari bidea emateko.

- Oroipen kontuak.

Eratutako abalak. Berme nahikoak erdiestea - kontuan izan, hala ere, kasu batzuetan gerta daitezkeen ekonomi eta gizarte eragin bereziak- eta onarturiko arriskuen eta horien bilakaeraren eten-

gabeko jarraipen zehatza egitea, informazio hori urteroko oroit-idazkian azalduz.

- Langileriaren kudeaketa.

Nafarroako Gobernuko egungo plantila organikoa zerbitzu publikoak modu arrazional eta eraginkorraz emateak eskatzen dituen benetako langileri beharrezanez egokitzea.

Lege agindua betetzea, Nafarroako Administrazio Publikoen funtzionarioak taldetan edo kidegotan sartzeari buruzko lege bat egiteari dagokiona, funtzionarioen igoera eta mugikortasuna errazteko.

Gizarte Segurantzari atxikirik ez dauden Nafarroako Gobernuko funtzionarioei aplikatu dakiekeen jubilazio eta pentsioen eredia behin betiko finkatzea, egungo iragankortasun eta segurtasun eza ekiditeko.

Nafarroako administrazio publikoen soldata-ereduan elementu aldagarriak sartzeari, lanpostua, produktibitatea eta erdietsitako helburuen arabera zehazturik.

- Zuzeneko eta zeharkako zergak.

Horren zain dauden tributuen informatizazioa osatzea, bereziki oinordetza, ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuei buruzkoak.

- Administrazio-kontratazioa.

Administrazio Kontratazio Batzordeari eman zaizkion funtzioak garatzea, behar dituen baliabideez hornituz, legezkontasuna beteko dela hobeki bermatzeko eta kontratuen mailako jardueraren eraginkortasuna hobetzeko.

- Barneko kontrola.

Behar bezala indartzea eta arau bidez garatzea Nafarroako Gobernuko Kontuhartzaitza Nagusiaren eta haren Barneko Kontu Ikuskapen Atalaren edukia eta jarduteko formulak.

III.1.7. Efi-kazia, efi-zientzia eta ekonomia

Norainokoaz ari ginenean aipatu ditugun muga eta edukiekin bat etorritik, gure helburua da Nafarroako Gobernuak garatu dituen hainbat programa eta jarduketa kudeatzean lortu den efi-kazia, efi-zientzia eta ekonomiari buruzko zenbait ondorio ateratzea.

1997. urtean honako hauek aztertu dira:

a) Belateko mendateko obrak.

b) Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua erakunde autonomoko Kirol eta gazteria sustapena programa.

c) Tributu arloko Txosten eta Ebazpen Organoaren analisisa (61 zk.ko NPAO, 1998ko abuztuaren 13koa).

d) Profesionalei emandako ordainsarien analisisa.

e) Familia eta komunitatea programa.

f) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zerbitzu-emateko kontratuak.

g) Ikuskatze, prestazio eta osasun-kontzertuei buruzko programa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuarena (60. zk.ko NPAO, 1998ko abuztuaren 5koa).

Lan horiek bereiz argitaraturiko txosten baten arretagai izan dira; txosten horretan egin dira efikazia eta efizientziari buruzko ondorioak eta gomendio partikularrak. Dena den, oro har, honako gomendio hauek egin daitezke:

- *Nafarroako Gobernuak egungo arautegiaren eta programakako aurrekontu-praktikaren garapena sakondu behar du, efikazia, efizientzia, ekonomia eta gardentasunaren printzipioen arabera jokatu behar duen kudeaketa publikoak eskatzen dituen baldintzak bete ahal izateko. Azterketa eta gogoeta prozesu honetan estamentu guztiak hartu behar dute parte, eta batez ere Nafarroako Parlamentuak.*

- *Kudeaketa publikoaren fase guzti-guztietan baliabide publikoen erabilera arrazoizkoa bilatzen duten aurrekontu-tekniken filosofiak presente egon behar du, antolamendu guztia hartu behar du eta enplegatuen lanaren pizgarri izan behar du, bidenabar norberaren erantzukizuna eskatzen delarik.*

- *Programa publiko guztiak biltzen dituzten laguntzak aplikatzeak gizartean lortzen dituen egiazko emaitzak analizatzeko azterketak edo ebaluazioak sistematikoki egin behar dira, lortu nahi ziren helburuak benetan lortzen ari ote diren baieztatu ahal izateko.*

IV.2. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIO OROKORRAK

IV.2.1. Kontabilitate-sistema

Gobernuak 1985ean ezarri zuen kontabilitate-sistemak kontusail bikoitzeko kontabilitatea egitea ahalbidetu zuen, eta, bere garaian, aurrerakada garrantzitsua ekarri zuen, aurrekontuei, kontabilitateari eta finantzei buruzko informazioa hobetu baitzuen.

Denboraren iragateak beharrezko egin du aldaketak sartzea, hirugarrenen kontabilitateko

eta altxorreko sistemekin osatuz, eta gaur egun aldaketa gehiago egiteko dauden beharrianek (Gobernuaren hainbat urtetarako konpromisoak behar bezala erregistratzeko, kudeaketa-zentroen beharrianak asetzeko, kontratu-mota ezberdinak behar bezala bereizteko, inbentarioa modu egokian kudeatzeko eta aurki izango den moneta-aldaketari egokitzeko, besteak beste) agerian uzten dute berriro ere sistema aldatzearen egokitasunari buruzko gogoeta egiteko beharra, sistema moderno, arin eta errazagoa ezartzeko. Horrela, azken urteotako praktikak erakutsi dituen arazoak konpontzea bilatzen da, egoera-balantzeari buruz salbuespenik gabeko iritzi positiboa eman ahal izan dezagun.

Ekonomi eta Ogasun Departamentua guztiz jabetua dago arazo honez eta datorren ekitaldian, 1999koan, sistema berria eduki ahal izateko beharrezkoak diren lanak burutzen ari da.

Hauxe gomendatzen dugu: adierazitako ildoari atxikitzea eta beharrezkoak diren bitarteko pertsonal eta finantzarioak jartzea kontabilitate-sistema arinago, errazago eta eraginkorragoa eduki ahal izateko, horrela kudeaketa errazagoa izan dadin eta kudeaketa-zentroetako beharrianak ase daitezten.

IV.2.2. 1997ko aurrekontu-betetzearen alderdirik aipagarrienak

Aurrekontu-betetzeari buruzko iritziak dituen salbuespenak kontuan edukiz, 1997ko aurrekontua onetsi zen hasierako gastu-aurreikuspenak 271.049 milioioak izanik eta dirusarrera ez finantzarioenak 262.141 milioioak. Beraz, printzipioz, kanpo-finantzaketako beharrianak 8.908 milioioak ziren.

Aitorturiko obligazioak 273.947 milioioak dira, aurrekontu bateratuarekiko betetze-maila ehuneko 94koa izanik, eta, hasierako aurrekontuarekiko, ehuneko 101ekoa.

Departamentuka, Osasunekoak eta Hezkuntzakoak gastuaren ehuneko 44 bereganatu dute.

Aitorturiko eskubideen guztizko zenbatekoa 277.939 milioi pezetakoa da, bateraturiko aurrekontuarekiko betetze-maila ehuneko 95,3koa izanik eta, hasierako aurrekontuarekiko, ehuneko 102koa.

Osaketari dagokionean, phiko dirusarreraren pisua 8 puntutan gehitu da 1996. urtearekiko, dirusarreraren ehuneko 98 osatzera iritsi arte, dirusarrera finantzarioen kaltetan.

Dirusarrerren exekuzio horren ondorioz, 1997an aurreikusitako 8.908 milioiko zorra jaulkitzea ez da beharrezkoa.

Aurreko datuen arabera, aurrekontua 3.992 milioiko superabitarekin itxi da, aurreko ekitaldikoen antzekoa (4.243 milioiko superabitarekin itxi zen), nahiz eta 1997an 3.358 milioiko zorra amortizatu den, aurreko urteko 755 milioien aurrean.

IV.2.3. Kontratazio publikoa

• Administrazio Kontrataziorako Batzarra

Departamentuek kontratuak eta, batez ere, euren aldaketak eta exekuzio-faseko gorabeherak igortzearen inguruan Batzar horrekiko dituzten betebeharratik batzuk bete gabe jarraitzen dute.

Batzarraren jarduera, oro har, kontratuen erregistrora eta kontratazioari buruzko oroit-idazkia idaztera mugatzen da, eta ez dauzka beharrezko diren baliabideak kontratazio publikoaren arloan kontrol eta aholkurako benetako organo gisa aritzeko dituen eginkizunak garatzeko.

Kontratuei buruzko Foru Lege berriak joan den abuztuaren 1ean hartu zuen indarra, eta une horrek abiaburu izan behar du lege horretan eta, bereziki, 162. artikuluan ezartzen zaizkion eginkizun ugariak betetzeko gauza izango den Kontratazio Batzarra luzapenik gabe eratzeko. Ziur gaude hori oinarritzko bermea izango dela Nafarroako administrazio publikoek kontratazio hobea egiteko.

Batzarraren jarduera indartzea gomendatzen dugu, kontratuei buruzko lege berriak esleitzen dizkion eginkizunak behar bezala bete ahal izan ditzan.

Administrazio Kontrataziorako Batzarrak 1997an jaso dituen kontratuek gora egin dute: ehuneko 5, 1996koekin konparatuz gero.

Kontratuen izaerari dagokionez, zabalduena hornidura-kontratua da kontratu guztien ehuneko 49, baina zenbatekoetan lehenengoak obretakoak dira esleitutakoaren ehuneko 53.

Esleipen-sistemari dagokionez esan behar da, 1995ean jada, lehenengo aldiz, lehiaketa izan zela, zuzeneko kontratazioaren gaineratik, gehien erabilitako esleipen-prozedura. 1997an, egindako kontratuen ehuneko 61 lehiaketaren bidez esleitu ziren. Portzentaia hori ehuneko 78koa da esleituriko guztizko zenbatekoari dagokionean.

Azkenik, ondorengo koadroan ikusten ahal da Nafarroako Gobernuak 1991 eta 1997 arteko aldiaren erabili dituen esleipen-prozeduren bilakera, ehunekoetan, beti ere.

Ekitaldia	Enkantea	Lehiaketa	Z. Esleipena
1991	1	8	91
1992	0,5	15	84,5
1993	0,3	21	78,3
1994	2	33	65
1995	5	50	45
1996	6	55	39
1997	5	61	34

Ikusten denez, zuzeneko esleipenak prozedura negoziatua deitzen dena, gaur egun hurrengo bilakaera izan du: 1991 urtean egin ziren kontratu guztien ehuneko 91 prozedura honen bidezkoa izan zen, eta 1997. urtean, aldiz, egin ziren kontratuen ehuneko 34 bakarrik. Alderantziz, lehiaketa, ehuneko 8 baino ez zena, egun kontratuen ehuneko 61 izatera pasatu da.

• Enpresa publikoetako kontratazioa

Jarraian, Kontratazio Batzarrarengandik jasotako informaziotik abiatuz, enpresa publikoek eginkizun bi milioi pezeta baino zenbateko altuagoa duten kontratuak aurkeztuko ditugu, esleipen-motaren eta kontratu-motaren arabera sailkatuz. Kontuan hartuta daude funtzio publikoak betetzen dituztenak edo zerbitzu publikoak kudeatzen dituztenak (hemeretzi, guztira); beraz, kanpoan utzi dira industria edo finantza arloko enpresa publikoak:

(milioitan)

Esleipen-mota	Kontratu-kopurua				Kontratuen zenbatekoa			
	1996		1997		1996		1997	
	Zenbat	%	Zenbat	%	Milioiak	%	Milioiak	%
Lehiaketa bidez	104		114		731	13	770	10
Egunkarietan iragarkia jarrita	125		114		4.395	80	5.088	66
Egunkarietan eta NAOn iragarkia jarrita	5		7		382	69	782	10
Guztira, lehiaketa bidez	234	77	235	69	5.508	94	6.640	87
Lehiaketarik gabe	70	23	108	32	364	6	1.011	13
Guztira	304	100	343	10	5.872	100	7.651	100

Esleipen-mota	Kontratu-kopurua				Kontratuen zenbatekoa			
	1996		1997		1996		1997	
	Zenbat	%	Zenbat	%	Milioiak	%	Milioiak	%
Obra	152	50	158	3	4.893	83	6.053	79
Hornidura	77	25	72	21	472	8	693	9
Zerbitzu-ematea	75	25	113	33	507	9	905	12
Guztira	304	100	343	100	5.872	100	7.651	100

Aurreko datuetan jasotako hemeretzi enpresa publikoetatik, horietako seiren lagin bat hartu dugu (Ciudad del Transporte de Pamplona, Navarra del Suelo Industrial, Navarra de Medio Ambiente Industrial, Obras Públicas de Navarra, Planetario de Pamplona eta Viveros y Repoblaciones, S.A.).

Hautaturiko laginak 3457 milioi barne hartzen ditu, hau da, guztizkoaren %45, eta, eginiko lanetik abiatuz, honako **ondorio** honetara iritsi gara:

Azterturiko laginetik ondorioztatzen da izaera instrumentaleko enpresa publiko nafarrek euren esleipenak egiten dituztela lehiaketa eta publizitatea erraztuz, kontratuei buruzko legeak ezarri bezala.

IV.2.4. Hitzarmena Estatuarekin

1997ko urrian sinaturiko Nafarroa-Estatua Hitzarmenaren ondorioz Nafarroak Estatuko karga orokorretara eginiko ekarpen garbia 17489 milioi pezetako transferentzian gauzatu da 1997an. Kopuru hori beranduago doituko da, bi administrazio horien aurrekontu-betetze errealen arabera.

Lorturiko akordioek posible egin dute 1993tik zintzilik zeuden BEZaren doiketaren likidazioak ixtea; baita ere, 1995etik, hau da, 1995-1999 bosturteko berriaren abiaurtetik karga orokorrei egin beharreko ekarpenak ixtea eta aurrekontuetako

kopuruei buruz zekartzaten zalantzak argitzea, gure ogasunaren finantza-ahalmenean eragin negatiborik izan gabe.

Halaber, hidrokarburoen eta tabakoaren gaineko zerga berezien kudeaketa hartu da, lehen Estatuaren eskumenekoa zena, eta asegurusarien gaineko zerga berriarena.

IV.2.5. Erakunde autonomoak

- Nafarroako Gobernuak administrazio-izaerako zazpi erakunde autonomo dauzka, eta horien aurrekontu-likidazioa Gobernuarenean sartuta dago.

- 1997an betetako gastuen guztizkoa 81.477 milioi pezetakoa da -hau da, Gobernuaren gastu guztien %30-; dirusarrerak, ordea, 2446 milioioak dira -dirusarrera guztien ehuneko 1-. Beraz, 79031 milioiko finantza-beharrizanak dituzte; horien ehuneko 79 eta ehuneko 15 Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak, hurrenez hurren, gainean hartzen dute.

- 1996etik, erakunde autonomoek ehuneko 7 egin dute gora, dirusarrerak ehuneko 8 jaitsi diren arren. Horrela, finantzaketa-beharrizanak, aurreko ekitaldiarekiko, ehuneko 8 igo dira. Horrek esan nahi du 5650 milioi pezetako gehikuntza izan dela.

Gomendioak:

Aztertu ea egoki den hainbat zerbitzu erakunde autonomoen formularen bitartez ematea, bereziki horietako batzuek euren oinarrizko eskumenak mugatuta eta baliabide urriak dauzkatenean.

Aurrekontu-zorroztasuneko politikaren barnean, ahalegina egin erakunde autonomoek gastua gerarazteko eta kudeaketa hobetzeko neurriak aplikatu dituzten.

IV.2.6. Zuzenbide publikoko entekak

• Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP) 6419 milioi pezetako gastuak izan ditu; dirusarrerak, berriz, 6807 milioiokoak izan dira. Beraz, 388 milioioko aurrekontu-superabita izan du. Ohiko gastu eta dirusarrerak dira nagusi haren aurrekontu-egituran.

1996ekin alderatuz, gastuak ehuneko 14 hazi dira, eta dirusarrerak, berriz, ehuneko 11. 1997ko aurrekontu-superabita 109 milioi txikiagoa da aurreko ekitaldikoa baino.

Dirusarreren jatorria haxe da: transferentziak, batez ere Nafarroako Gobernuarenak, ehuneko 66, eta tasak (ehuneko 19).

NUPeko 1997ko ekitaldiko kontuen ikuskaritza enpresa independente batek burutu du, eta horrek eginiko txostenean hainbat salbuespen agertzen da; horien garrantziagatik eta kontu-ikuskaritza hori Gobernuaren oroit-idazkian ez agertzeagatik, jarraian azalduko ditugu salbuespenok:

a) Unibertsitatearen Erreformari buruzko abuztuaren 25eko 11/1983 Lege Organikoak unibertsitateei galdatzen die euren kontuak antola ditzatela aurrekontu-, ondare- eta analisi-kontabilitateko printzipioei jarraituz, eta euren kontabilitate-sistema sektore publikorako orokorki ezarrita dauden arauetara egokitu dezatela. Unibertsitateak aurrekontu-kontabilitatea soilik dauka. Beraz, honekin batera doazen aurrekontu-kontabilitateko egoera-orrien helburu bakarra kontrol-organoei Unibertsitateko kontuei buruzko azalpena ematea da, eta ez dira ondarearen, finantza-egoeraren eta Unibertsitateko emaitzen islada zehatza agertzeko urteroko kontuak, Kontabilitate Publikoari buruzko Plan Orokorrean agertzen diren guztiok onarturiko kontabilitate-printzipio eta -arauak jarraitzen dietenak, informazio publikoari buruzko betekizun berriek eskatzen duten bezala.

b) Unibertsitateak, aurreko ekitaldian bezalaxe, ez du bankuen arloko kontabilitate-erregistrorik mantendu 1997ko ekitaldian zehar; horregatik, ez du altxor-adosterik egin, ez urtean zehar, ezta ekitaldi-amaiera egitean ere. Beraz, ekitaldi-

amaieran finantza-entitateek eskainitako banku-saldoak bereak bailiran hartu ditu Unibertsitateak, eta, horregatik, ez da posible objektiboki zehaztea aurrekontu-kontabilitateari buruzko egoera-orriek Unibertsitatearen 1997ko dirusarrera eta gastu guztiak barnean hartzen dituzten.

c) Inbertsio errealean ondorioz aitorturiko obligazio gisa jaso dira, alde batetik, 438 milioi pezeta, hitzarturiko gastuei dagozkienak, eta, 1997ko abenduaren 31n, horietarako beharrezkoa den harrera-akta oraindik egin gabe zegoen. Bestalde, ohiko ondasunen eta zerbitzuen ondoriozko gastuak ere aipatu dira, guztizko zenbatekoa 34 milioi pezetakoa dutenak. Aurreko ekitaldian aplikaturiko irizpideekin koherentzia mantenduz, Nafarroako Unibertsitate Publikoak obligazio gisa aitortu ditu, ekitaldi-amaieran, 1997ko aurrekontuaren kargura hitzarturiko gastu guztiak, nahiz eta, aurrekontu-kontabilitateko printzipioei jarraituz, gastu-aurrekontuaren likidazioari buruzko egoera-orriko aitorturiko obligazio garbiak saldoak eta aurrekontu-zorrei buruzko egoera-orriko 1997ko abenduaren 31n ordaintzeke dauden obligazioak saldoak 472 milioi pezetatan gainbaloratuak egon.

d) 1997ko abenduaren 31n, dirusarrera-aurrekontuko likidazioari buruzko egoera-orrian eta zerikusia duten beste egoera-orrietan ez da sartu Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren kargura dauden bekak kobratzeko eskubideen zenbatekoa. Zenbateko hori 95/96tik 97/98ra bitarteko ikasturteetan indarrean zeuden prezio publikoak dagokie, eta kobratzeke dago ekitaldiaren amaieran. Zenbateko hori 438 milioi pezetakoa da, gutxi gorabehera, eta, aurreko ekitaldian aplikaturiko aurrekontu-irizpideei eutsiz, dirusarrera gisa aitortzen dira kobrantza egiten denean.

e) 1997ko ekitaldian zehar gutxi gorabehera 172 milioi pezeta ordaindu da Irakasleak Parekatzeko Osagarriko (720 milioi pezeta 1993tik 1997rako eperako). Unibertsitatearen aurrekontuek behar bezalako babes juridikorik gabe segitzen dute gastu horiek erregistratzen, goian aipaturiko zenbatekoekin. Gaur egun ez da posible zenbateko horiek azkenean eskatzeko modukoak ote diren objektiboki esatea. Bestalde, 1997an Nafarroako Gobernuak kontzeptu horretarako egindako transferentzien ondoriozko dirusarrerak aitortu dira aurrekontuan, horien zenbatekoa 168 milioiokoa izanik, baina entitate horrek ez du hori hala izan denik berretsi, oraindik ez delako Parlamentuan akordiorik lortu horren babes juridikoa 1993tik gaur egun arte legez garatzeko, Nafarroa-

ko Gobernuaren 1997rako Aurrekontuei buruzko Lege Orokorreko 22. artikulua arabera.

NUP bezalako ente publiko batek kontabilitate-eta kudeaketa-sistema egokiagoak behar dituela gogoan izanik, kontabilitate-egoera hori hobetu egin behar dela pentsatzen dugu. Horregatik, beharrezko deritzogu egoera hori premiaz konpontzeari; Nafarroako sektore publikoko ente garrantzitsu bat kaltetzen du.

Unibertsitateko arduradunak jabeturik daude horretaz, eta 1998an zehar, adierazi digutenez, egoki diren neurriak hartzen ari dira kontabilitate-eta kudeaketa-sistema hobetzeko. Ganbara honek datorren ekitaldiari buruz egingo duen fiskalizazio-planeari aztertuko ditu.

- Suhiltzaileen partzuergoak, 1997an, 1880 milioiko gastu eta dirusarrerak agertu ditu. Horrek esan nahi du aurreko ekitaldiarekiko ehuneko 10eko gehikuntza izan dela. Dirusarrerak funtsean Nafarroako Gobernutik datoz.

- Nafarroako Merkataritza Ganberan kanpoko profesional batek kontu-ikuskaritza egiten du urtero, eta horrek iritzi garbia adierazten du, salbuespenik gabekoa. Zifrarik adierazgarrienei dagokienez, dirusarrera arruntak 437 milioi pezetakoak dira, eta gastuak, ordea, 371 milioikoak. Ekitaldiko emaitza 66 milioi pezetako emaitza positiboa da.

III.2.7. Enpresen sektore publikoa

- Nafarroako Gobernuak gehieneko partehartzea -ehuneko 50 edo gehiagoko partehartze-porzentaia- dauka 26 enpresaren kapitalean.

- Horietan guztietan kontu-ikuskaritza profesional independenteek edo Nafarroako Gobernuko Kontuhartzaitzak berak egin dute, eta emaitzak honakoak izan dira:

a) Horietako hogeita hiruren kontu-ikuskaritza-ko txostenetan agertzen den iritzia garbia da.

b) Iritziak salbuespenak agertzen ditu bi enpresaren kasuan (Funvera, Planetario de Pamplona).

c) Kasu batean (POSUSA) ez da iritzirik adierazi, sozietatea likidazio-prozesuan aurkitzen delako eta une honetan ez delako posible azkenean iritsiko diren likidazio-akordioen ondare-eragina zehaztea.

- Enpresen sektore publikoko datu ekonomiko aipagarrien artean, hauek azpimarratuko ditugu:

a) Enpresen Sektore Publikoaren negozioaren zenbatekoa 26.242 milioi da, eta fakturazioa 1500 milioitik gorakoa duten bederatzi enpresa bereizten dira: Magnesitas de Navarra, Audenasa, Vinsa, Funvera, Tracasa, Viveros y Repoblaciones, Riegos de Navarra, Potasas de Navarra eta Potasas de Subiza.

b) Sektoreko irabazi garbiak 3991 milioi dira; bertan sarturik dago Potasas de Navarra-ren 2190 milioi aparte irabazia. Mozkinei dagokienez, hauek dira aipagarri: Vinsa, 789 milioi; Audenasa, 532 milioi eta Magnesitas, 268 milioi pezeta. Galerei dagokienez, Nafinco da aipagarri, 188 milioirekin; kopuru hori ez da Gobernuaren oroit-idazkian agertzen, hori egitean ez zegoelako kopuru horren berririk. Halaber, aipatu beharrezkoa da Funvera, Susnor, Planetario de Pamplona, Opnasa, CTPSA eta Potasas de Subiza mozkinak izaten hasi direla.

Txosten hau berorren arduradun den Francisco Javier Sesma Masa kontuhartzaitze jaunak hala proposatuz eman da, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 1998ko urriaren 13an.

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat 5.900 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 135 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 170 » .</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p>
--	---